

**2005EKO MAIATZAREN HOGEITA SEIAN UDAL PLENOAK
EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIKO AKTA.-**

Zumaiako hirian, bi mila eta bosgarren urteko maiatzaren hogeita seian, arratsaldeko zortzietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan (Foronda Kultur Etxean), Udal Plenoa eratu da ohiko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez izendatutako eguneko aztergaiari jarraituz. Eta garaiz eta behar bezala deituak izan zirelarik, ondorenean aipatzen diren korporazio kideak etorri ziren:

LEHENDAKARITZA.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

ZINEGOTZIAK.-

Asier ESNAL ALBIZU jauna.
Manuel ZUBIA ARTABE jauna.
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.
Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.
Andoni ETXANIZ OSA jauna.
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA jauna.
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jauna.
Abel YEREGUI SASIAIN jauna.
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna.
Paloma HEREDERO NEGREDO andrea.
Cristina FORCADA UNANUE andrea.

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

**1.- AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO
BADA (2005.04.28)**

Alkate-Lehendakari andreak bilera eratutzat eman ondoren, korporazio kideren batek onarpena aurkezturiko aktari buruzko oharpenik egin nahi lukeen galdetzen du.

Ondoren, adierazi du, aktaren 4. puntuan, hauteskunde autonomikoei buruzko aipamena egiten den lekuan, Europar Konstituzioaren Erreferendumari buruzko aipamena egin behar duela.

Oharpenik adierazten ez denez, bozketa eginik, korporazio kideek aho batez onartzen dute 2005-04-28ko batzarraldiaren akta.

2.- MOZIOAK:

Alkateak gaur eguerdian Udalean ordezkariak duten alderdien Bozemaileen bilera egin dela azaltzen du. Mozioak bertan eztabaidatu direnez orain bozketa egitea dagokigu.

2.1 IZUSTARRI:

A) STATUS POLITIKOAREN ALDE, EUSKAL PRESOK EUSKAL- HERRIRA.

IZUSTARRI taldeko bozemaileak Mozioaren testua irakurtzen du:

STATUS POLITIKOAREN ALDE, EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA

1.-Printzipio humanitarioekin, gizaki ororen eskubide eta askatasunarekin bai eta herri bezala dagozkigun eskubideen alde gure konpromiso irmoa agertu nahí dugu

2.-Euskal Preso Politikoen, gainontzeko euskal hiritarren gisan, Euskal Herriaren Hitza eta Erabakia gauzatzeko bidean zuzenean eta inongo trabarik gabe parte hartzeko duten eskubidea aldarrikatzen dugu

3.-Euskal presoek, euren etxe eta senide eta lagunengandik hurbil egoteko duten eskubidea berretsiz, sakabanaketa eta isolamendu egoerak behin betiko bukatzeko eskatzen dugu

4.-Benetako bake prozesu batean, Espainiako Gobernuak eta ETA erakundeak, Euskal Preso Politikoen arazoari heldu behar diola, konponbide eta akordioak lortzeko borondate eta ausardiarekin

5.-Udal hau, euskal presoek eta euren senideen aurka ezartzen den zigor gehitua den dispersio politikaren aurka lan egiteko konpromiso zehatzak hartzeko prest agertzen da, *dispertsioak irauten duen bitartean, kosteak udalak beregan hartuko dituelarik.*

6.-Mozió honen edukiak, komunikabide guztietara eta Zumaiako etxe guztietako buzoietara helaraziko dira, bando bidez

Euskal Herrian 2005eko apirila.

EAJ-ko ordezkariak aldi berean beraien erantzuna irakurtzen dute, bertan zehazten diren arrazoiak bide Ezezko botoa emango dutela aurreratuz.

STATUS POLITIKOAREN ALDE, EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA izenburua daraman mozioaren aurrean, EAJ-PNVren Udala taldeak, honako adierazpen hauek aurkezten dizkio Udalaren osoko bilkurari mozió alternatibo gisa onar ditzan:

- Lehenik eta behin, printzipio humanitarioekin zein gizaki ororen eskubide eta askatasunekin dugun konpromisoa aldarrikatu nahi du
- Hortik abiatuta, Euskal Presoek, gainontzeko euskal hiritarren gisan, Euskal Herriaren hitza eta erabakia gauzatzeko bidean zuzenean eta inongo trabarik gabe parte hartzeko duten eskubidea aldarrikatzen du
- Euskal Presoek, etxetik eta sendietatik hurbil egoteko duten eskubidea berretsiz, sakabanaketa eta isolamendu egoerak behin betirako amaitzea exijitzen du
- Benetako bake prozesu batetan, Espainiako Gobernuak eta ETA erakundeak, Euskal presoaren arazoari eutsi behar diotela, konpromiso bide eta akordioak lortzeko borondatearekin eta ausardiarekin.

EA-k era berean mozioari erantzunez ondorengo testua irakurtzen dute ezezko botoa emango dutela aurreratuz.

MOZIOA

1.- Euskal Herriak ahots, hitz eta erabakia izateko eskubidea duela aldarrikatzea eta inork ez duela zilegitasunik beraren proiektua indarrez inposatzeko baieztatzea. Euskal gizarte aske eta integratu bat, eta Europar Batasunaren barnean nazio eraikuntzarako prozesu bat, erabat bateraezinak dira indarkeriazko edonolako adierazpenekin.

2.- Gure Aberriko pertsona, arlo politiko eta sozial guztiak, bereizketarik egin gabe, politikaren egunez-eguneko bizitzan edozein indarkeriazko ekintza, mehatxu edo koakzioaren eraginik egon gabe

parte hartzeko daukaten eskubidearen aldeko hartuta daukagun konpromisoa adierazten du berriro ere.

3.- Pertsona guztien giza eskubideen defentsarekiko gure lehentasunezko konpromisoa aldarrikatze dugu, ezinezkoa delarik edozein motako bereizketa egitea bere ideia (zibil, politiko eta erlijiozkoak), sexu, adin, egoera zibil edo pertsona espetxeratuak izateagatik.

4.- Espainiar Estatuko Gobernuari exijitzea, indarrean den legedia aplikatuz eta ikuspuntu gizatiar bati jarraiki, egungo espetxe-politika alda dezala, honela euskal presoek dagozkien eskubideak errespetatu daitezken. Eskakizun honek legedian araututa dauden neurrien ezartzea berarekin dakar; euren zigorraren hiru laurdenak beteta dauzkaten presoak berehala kaleratzea, gaixo diren presoak kaleratzea, askatasunik gabe diren euskal hiritarrak euren jaioterritik hurbilen dauden espetxeetara hurbiltzea, eta espetxe barruan bizitza erregimena, bisitak, ikasketak, hizkuntzaren erabilpena eta abarri dagozkion eskubideak erabat errespetatzea.

5.- Herritarrei dei egitea giza eskubide guztien errespetua eskatzerakoan gizartearen partehartzearen garrantziari buruz, bizitza eskubidearen errespetutik hasi eta, kasu honetan, askatasunik ez duten hiritarren eskubideena ere.

6.- Gure herriak bizi duen gatazka politikoaren irtenbidera bakarrik elkarriketaren bitartez heldu daitekeela eta, baita ere, bai biolentziaren estrategian, bai bide! errepresiboetan mugitzen diren pertsona guztien paper sapustutzailea salatu nahi dugu.

PSOE alderdiak zera dio, mahai gainean jarri diren hiru testutan bildutako argumentuei erantzuten saiatuko direla.

Adostasuna adierazi aurkeztu diren testuekiko bakegintza sustatu behar dugunari dagokionez.

Negoziaketa zer izan behar duenari buruz, ez dute erantzunik ematen. Presoek ez daukaten eskubide eta protagonismoa ezagutarazi nahi diete. Preso daude, delitu bat egin dutelako. Pertsonen aurka egin daitekeen handiena. Demokraziaren aurka eta ezarritako ordenaren aurka. Eta gainera negoziaketetan zeresana izan dezatela ezagutaraztea, gehiegitxo da.

Politika egiteko modu arbitrario eta diktatorialak dira. Ez dugu onartzen aurkeztu den mozioa ez eta ere erantzun gisa emandakoak.

Negoziatu behar dela ados, baina ez edozein prezioetara, ez eta ere ezarritako ordenu juridikoaren aurka. Agian gehien ausartzen den alderdia izango da irtenbideak lortzen dituen.

Era guztietara, izaera honetako mozioak ez lirateke Udal Batzan eztabaidatu behar. Udalaz gaineko gaiak direlako eta ez dutelako ezer berririk eranstean Udalaren gestioaren egunerokotasunean.

EAJ-ak presoeri nazioaren etorkizunari buruzko eztabaidan gehigarri berezirik ez diela ezagutzen azpimarratzen du. Baizik beraientzat duten izaera izanda, dagokien status eta eskubideak.

Zeharo pozten gara negoziaketa hitza entzuteaz erronka jota dago, besteak erantzun behar orain. Biziki poztuko ginateke egoerari irtenbide bat aurkituko bagenu.

EA-k ere presoeri negoziaketetan eskubide berezirik ez diela ezagutzen dio. Baina bai uste dugu arazo bat dagoen unetik eta nazio bat garen heinean gure erabakitze eremua edukitzeko eskubidea daukagula.

EB-BERDEAK aipamen berezirik ez duela egin nahi adierazten du.

IZUSTARRIK zera dio, beraiek ere presoeri negoziaketan ez diela izaera berezirik ezagutarazten. Horren adierazgarri da 2. Puntuan dioena, esaldi argia da ulertu nahi bagara.

Guk euskal presoak Euskal Herrira hurbiltzea eskatzen dugu.

Euskal presoak ez dira ETAkoak bakarrik, HAIKA-koak, Joxemi Zumalabe etab. Guztira 750 preso, hauetatik 250 baino ez dira ETA-koak. Eta hauen artean heriotz delituak dituztenak ehunen bat.

Egin daitekeen krimenik handiena dela esan da, baina gaurko berrietan agertu den pederastiarena ez da txukunagoa.

Estatuko legedia aplikatuaz preso hauek Euskal Herrian egon behar dute.

Mozio hau Plenoan eztabaidatu behar dela uste dugu. Mozio hau ez da ezker abertzalearena, Billabonako Udalak onartua da, bertan Gobernuan PNV eta EA daude. Eta ez dago hain arinki botatzerik mozio hau agian presioak egon direlako onartuko zela.

EA-k dio, euskal presoak, ETA-koaz gain gizarteko arlo ezberdinetakoak direla. Generikoki deitzen zaie euskal presoak, Euskal Herrikoak direlako. Oso gai konplexua eta mingotsa da, presoak dira, motibazio politikoengatik. Bere ideien arabera erabaki dute ekintza militar bat aurrera eramatea. 800 hildako egon dira. Zenbaitzuk 20 hildakoren zama dute bizkar gainean.

IZUSTARRI-k dio, Euskal Presoen eskubideak ez direla betetzen. Horregatik dagoela preso Arnaldo Otegi. Tortura bidez atera dira autoinkulpazioak. Kartzelan lau urte igarotakoak badira, torturapean ateratako autoinkulpazioz, benetako gaizkileak Frantzian harrapatu eta aske utzi dituzten arte.

Egin dutena egin dutela ere, beraien eskubideak dituzte.

Dispersioaren aurka agertzen zarete, baina ez duzue dirulaguntzarik ematen. Ataungo Udalak ematen ditu.

EAJ-k dio Udal bakoitza mundu bat dela. Eta gaineratzen du EHAK alderdiak, autonomi elkarteko parlamentuan ez duela Madrileko atentatuari buruzko aipamenik egingo. Beraz agerian gelditzen da zuen alderdian ere badaudela posizio ezberdinak.

Ondoren bozketa egiten da:

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 12 (5 E.A.J, 2 IZUSTARRI, 2 E.A, 2 PSOE eta 1 EB-BERDEAK)

Aldeko botuak: Bi IZUSTARRI.

Aurkako botuak: Bederatzi (5 EAJ; 2 EA; 2 PSOE).

Abstentzioak: Bat EB-BERDEAK.

ERABAKI DA:

IZUSTARRI Taldeak aurkeztu duen STATUS POLITIKOAREN ALDE, EUSKAL PRESOK EUSKAL- HERRIRA Mozioa ez onartzea.

B) AHT-RI AURRE EGIN.

IZUSTARRI-ko bozemaileak irakurtzen du mozioa:

AHT -RI AURRE EGIN. MOZIOA

Urteak dira, Euskal Herriaren lurzorua gainean eraiki daitekeen gehiena eraikitzen iristear gaudela esaten ari garela. Baina gaur da eguna, Euskal Herria, bere garapenaren izenean eraiki denari eta are gutxiago eraiki nahi denari eusteko adinako espazio eta ahalmenik gabe geratu dena.

Herri bezala edukitzea ezinbestekoa zaigun ikusmolde bat gabe, nazioarte mailako eragin ardatzen bailan kokatuta, edo aldiz, ikuspuntu sektorial eta partzial huts batetik soilik egiten dira azpiegiturak herri honetan; lehen eraikia dagoena hobetzeko asmorik gabe eta eginak dauden gainontzeko azpiegiturekin uztartu gabe.

Europa mailan parral egin duten azpiegitura formulak, aurrerapenaren izenean gauzatu nahi dira hemen, herri honetako baldintza eta orografia eredu honek parral egin duen eremuekin alderatuz askoz ere kaxkarragoak izanik ere.

Hauxe da gaur egun, makro azpiegituren aurrean egin genezakeen irakurketarik simple eta gardenena, eta AHT -ak berez aspalditik eskuartean dugun arazo hau biderkatu besterik ez du egiten.

Milaka hektarea lur behar dituen azpiegitura erraldoi hau, egiazkoak ez diren argudioetan oinarrituta ari da garatzen:

Ez du merkantzien arazoa konpontzen. Ez du gure eskualde eta herrien arteko sarea indartzeko balio Egiten den inbertsioaren errentagarritasuna ateratzea ezinezkoa da, agortuta dagoen marko politikoaren neurrira eginiko azterketa eta ibilbideak ditu eta besteak beste, milaka herritarren borondatearen gainera inposatua da.

Jaurlaritzak, AHT-ri BAI esateko kanpaina da inposaketaren eredu nagusia. BAI esateko aukera besterik ez daga eta herritarrek esan ordez, baiezkoa esatea ere Jaurlaritzako kideen esku geratzen da, gainontzeko milaka herritarrok ez dugulako guri iritzia emateko aukerarik.

Argudio hauek kontutan hartuz eta AHT-ren lanek Euskal Herriaren aurrean izan dezakeen eragin atzerazinen aurrean **IZUSTARRI** Herri Plataformak honako mozio hau aurkezten du Osoko Udal Batzarrean eztabaidatua eta onartua izan dadin:

1.- Udal honek, Abiadura Handiko Trenaren proiektua **gelditzea eskatzen du**, gure herriarentzat garapen politiko, ekonomiko eta sozialaren ordez, kontaezin adinako kalteak ekarriko dituelako, gutxi batzuen mesedetan.

2.- Udal honek, behingoz, Euskal Herria osoko ikusmirarekin azpiegiturei buruzko eztabaida politiko eta sozial bat hasteko premia aldarrikatu eta bultzatu nahi du

3.- Bitartean, gauzatu nahi diren azpiegitura erraldoi hauen eta bereziki Abiadura Handiko Trenaren MORATORIA eskatzen dio Udal honek Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari eta . Espainiar Estatuko Gobernuari. Aurrera begira emango diren pausak Euskal Herri osoko interesen arabera izan daitezkeen eta atzerazinak izan daitezkeen kalteak ekiditearren.

4.- Udal honek, **AHT gelditzeko** antolatzen diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten die herritarrei.

5.- Onarturiko eduki hauek publiko egiteko erabakia hartzen du Udal honek.

Euskal Herrian, 2004ko abenduan

EAJ-k mozioaren erantzuna irakurtzen du:

AHTaren aurkako mozioari erantzuna

Euskal Erkidego Autonomoan azken 150 urteetan industriaren inguruan kultura sakon bat garatu dugu, XIX. mendean Bilboko Portuaren inguruan hasi eta abiada hartu duena. Kontuan hartu beharra dago, ordudanik gaurdaino populazioak izugarritzko hazkundera izan duela eta populazio hau hiri handien inguruan biltzen da.

Ezin diogu industria kultura honi bizkarra eman, baina garapena iraunkorra izateko saiakera berezi bat egin behar da eta bide hau gure erakundeak (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia) ondo baino, hobeto lantzen ari dira, nazioarteko konpromisoak (Kiotoko protokoloa) eta Europan mailan hartutako neurriak eredutzat hartuz.

Perspektibaz begirutzen badugu, azken hamarkadatan emandako urratsak oso emankorrak izan dira, eta horrela ikusi behar ditugu: uraren zikloak ixtea (saneamendu eta depurazioa) parke naturalen hedaketa (Aiako Harria, Aralar, Aizkorri, Urkiola etab.), lur hezeen babesak (ario, Zumaia, Txingudi, Urdaibai, etab.) Industri kutsaduraren tratamendua, lur kutsatuaren isolaketa (Lindanearen isolamendu eta trataera) eta hainbat eta hainbat ekintza zuzentzaile. Zentzu honetan ere ikusi behar dira hiri hondakinen trataera egoki bat gauzatzeko ematen diren urratsak.

Gaur egun ingurugiroarekiko kalterik nagusienak mugikortasun ereduaren ondorio dira. Garraio sistema, oso kutsakorren errepideetan oinarrituta dagoelako, erregai fosilak erabiltzen direlako eta CO²-aren isurketa gehiegizkoa delako. 9.000 kamioi pasatzen dira egunero Irungo mugatik eta 600.000 pertsona mugitzen dira egunero gure EAEan arrazoi bat edo besterengatik (lana, eskola, etab.)

Gure gizarteak bizi kalitate faktore bat bezala ikusten du mugikortasunaren ahalmena eta aukera ezberdinak izatea. Bi arrazoi hauek kontutan hartuz, beharrezkotzat jotzen dugu trenbide sare egoki bat edukitzea (tranbia, hurbileko trenak, ibilbide luzeko trenak, metro a) eta bereziki merkatal garraioak ere zati handi batean trenez egitea. Horregatik beharrezkotzat jotzen dugu hirietan tranbiak hedatzea, Euskotren sarea indartzea, bailaretako trenak berreskuratzea (Deba bailarakoa) eta Europako hiriak gure hiriburuekin lotuko dituen tren sare berria eraikitzea.

Ondorioz, gure EAEko erakundeei ekindako bideari jarraitzeko eskatzen diegu, modu egokian, biharko naturaren egoera gaur egungoa baino hobea izan dadin.

Jasangarritasuna ez da gaur egun dagoen inguruan ezer ez aldatzea, modu egokian egitea baizik, datozen belaunaldiek gizarte eta naturaren arteko harreman orekatu bat izan dezaten.

E.A-k mozioaren erantzuna irakurtzen du:

Zioen azalpena

EAEko trenbide-sare berriaren ibilbidea onartu zuen Gobernu Kontseiluak, 2001eko otsailaren 27an.

Ibilbide hori onartu baino lehen, ia 10 urte iraun zuen prozesu bat egin zen, eta, prozesu horretan, aurkeztutako alternatiba guztiak aztertu ziren. Prozesu horretan, halaber, gizarte-eragile guztiak izan zuten beren alternatibak eta jarrerak adierazteko aukera.

Eztabaida- eta azterketa-prozesu luze horren ondorio moduan, aukeraketa-prozesu horren funtsezko irizpideei (ingurumenari errespetua izatea eta jarduera-ildoak garapen iraunkorreko testuinguru batean txertatzea) gehien egokitzen zitzaien ibilbide-alternatiba aukeratu zen.

Hori guztia dela-eta, Eusko Alkartasuna udal-taldeak honako mozio alternatiboa proposatzen du, udalbatzak azter dezan:

Mozio alternatiboa

Euskal Autonomia Erkidegoan garraio-sare iraunkor bat bermatzeko behar diren ingurumen-kontrolerako tresnak eta bitartekoak garatzen eta martxan jartzen jarraitzeko eskatzen dio ZUMAIAKO Udalak Eusko Jaurlaritzari.

PSOE-k dio, EAJ-ren erantzunarekin bat datozela. Garapen jasangarrirako baliagarri izan daiteken neurrian. 10 - 12 urtetan gabiltz horren atzetik borrokan, eraiki dadin eta orain lortzear gaudela ezezkoaren politikarengatik beharrezkoa den azpiegitura bat baztertzea ez da zuzena.

Nafarroako autobidearekin gertatutakoa aipatu daiteke. Biziak eta guzti galdu ziren.

Trenbidearen azpiegituraren aurka joatea ez da zentzuzkoa, merkantzien garraioa errepidetik kentzeko egiten da eta.

Gai ordenean EB-Berdeaken eskutik datorren mozioak, aldiz Eusko Trenbideetako tren karrilaren bikoizketa eskatzen du. Gure ustez hori ere beharrezko da. Era honetara Donostiatik Bilbora denbora arrazoizkoan jotea izango genuke eta ez orain iristen den denboran.

Trenbideraren bi azpiegitura horiek dira beharrezkoak.

Ondorioz Izustarrik aurkeztu duen mozioaren aurka bozkatuko dugu.

IZUSTARRI-k dio PSOE-ko ordezkariak hitzegiten duenean besteak soberan gaudela ematen duela, errealitatearen ezagutza osoa balu bezala aritzen bait da. Guk ez dugu ezezkoaren politikarik egiten aurka agertze utsagatik. Errealitate asko daude eta hauek begiratzeko ere era asko.

AHT-ren azpiegitura proposatzen den handiena da ekonomikoki eta eragin ekologikoari dagokionez.

Guzti hau kontuan harturik herriak ez dauka zer esanik ?

PSOE-k erantzuten du, bere asmoa ez dela iraintzea izan, ez naiz igarlea, baina Euskadin ezezkoaren politika errealitate bat da. Hori ezkorra eta galeraztzailea izatea da. Azkenik gainera oztopatzen dutenak dira azpiegitura gehien erabiltzen dutenak. Beharrezko diren proiektuak ezetz esateagatik atzeratzen dira.

IZUSTARRI-k dio, ez dutela ezetz esaten esateagatik baizik sentsibilitate ezberdinak daudelako. Denon artean erabaki dadila eskatzen dugu eta ez daitezela burukrata eta "gerifalteak" etorri erabaki horrekin.

EAJ-k PSOE-rekin bat etorritz dio, Gipuzkoa ezezkoaren lurraldea dela eta ezezkoak beti berdinak direla.

IZUSTARRI-k dio herriari galdetu behar zaiola eta PSOE-k erantzuten dio, gobernu programetan jasotzen direla horrelako azpiegitura proiektu garrantzitsuak eta eskatzen den herritarren partaidetza hori hauteskundeetan ematen dela.

IZUSTARRI- k Itoizko urtegiaren adibidea jartzen du epaien aurka ere gobernuak baietzari eusten diola.

EA-k dio, Nafarroako autobiari dagokionez, ezker abertzaleak Lurraldea plataformak aurkeztu zuen trazadua bere egin zuela. Eta trazadu hori, ingurugiro arau eta neurri guztien aurka zihoala.

EAJ-k dio ez duela ulertzen zergatik ematen zaion sinesgarritasun gehiago ezekoa mantentzen dutenei, baiezkoa diotenen gain. Agian gure ohiturak aldatuko bagenitu eta "yogi" bilakatuko bagina ez genuke azpiegitura hauen beharrik.

IZUSTARRI-k Zornotzako adibidea jartzen du, EAJ-k erantzuten dio ala eta guztiz ere hauteskundeetan Zornotzan, EAJ-k irabazi duela.

Ondoren bozketa egiten da:

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 12 (5 E.A.J, 2 IZUSTARRI, 2 E.A, 2 PSOE eta 1 EB-BERDEAK)

Aldeko botuak: Bi IZUSTARRI.

Aurkako botuak: Bederatzi (5 EAJ; 2 EA; 2 PSOE).

Abstentzioak: Bat EB-BERDEAK.

ERABAKI DA:

IZUSTARRI Taldeak aurkeztu duen AHT-RI AURRE EGIN
Mozioa ez onartzea.

2.2 .-EB – BERDEAK

A) BIGARREN TREN KARRILLA

EB-Berdeak taldeko ordezkariak mozioa irakurri eta zuzenki bozketara pasatzea eskatzen du.

Egunero-egunero, ehunka zumaiarrek Euskotren-eko zerbitzuak erabiltzen dituzte, Donostiako eta inguruko herrietako joan-etorrietarako. Ezinbestekoa da maiztasunak eta tren-zerbitzuen ordutegiak hobetzea, zumaiarren garapenari eta bizikaltateari begira.

Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailak bigarren trenbidea garatzeko asmoa du Zumaiatik Donostiara. Azpiegitura hori oso garrantzitsua da Zumaiaren eta bere ingurunearen arteko komunikazioa bultzatzeko. Izan ere, tren-zerbitzua ona izanez gero, autoa alde batera utzi eta garraio iraunkorra sustatuko genuke.

Hori guztiori dela eta, Ezker Batua - Berdeak-eko udal-taldeak honako mozio hau aurkezten du:

Mozioa

Zumaiako udalbatzak Zumaia eta Donostia arteko bigarren trenbidearen garapenaren alde dagoela adierazi nahi du.

Zumaiako udalbatzak udal-gobemuko taldeari eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailarekin biltzeko eta azpiegitura hori interesgarria iruditzen zaiola adierazteko. Era berean, udal-gobemuko taldeak azpiegitura hori garatzeko borondateari buruzko informazioa bilduko du.

Cristina Forcada Unanue
Ezker Batua - Berdeak-eko bozeramailea

EAJ-k dio mozioaren edukiarekin ados daudela, eta hori horrela izanik, Eusko Jaurlaritzarekin bilerak izan direla, Hiringitza Batzordean ere gaia eztabaidatu dela, eta tren karrilaren bikoizketa 2012-rako dagoela aurrikusia, beraz ados gaude eta hortan ari gara. Aldiz ez zaigu bidezko iruditzen geure buruari eskudunak direnekin harremanak izan ditzagun galdatzea, dagoeneko hori egiten ari bait gara. Beraz gu abstenitu egingo gara.

IZUSTARRI-k ere abstenitu egingo direla dio. Ez zaigu Plenoko gaia iruditzen Batzordean aztertu beharrekoa da.

PSOE-k abstentzioa bozkatuko duela aurreratzen du. Egin beharreko azpiegitura dela derizkiogu, baina mozioa Plenoan sartzea ez da bidea.

EA ere ados dago mozioaren edukiarekin, eta Eusko Jaurlaritzaren aurrean gestioak egiten ari direla kontuan izanik oztopoak jarri beharrean, eskatzen du, denenon indarrak bateratu ditzagun helburu bera lortzeko.

Ondoren bozketa egiten da:

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 12 (5 E.A.J, 2 IZUSTARRI, 2 E.A, 2 PSOE eta 1 EB-BERDEAK)

Aldeko botuak: Bat EB-Berdeak.

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: Hamaika (5 E.A.J, 2 IZUSTARRI, 2 E.A, eta 2 PSOE)

ERABAKI DA:

EB-BERDEAK Taldeak aurkeztu duen **BIGARREN TREN KARRILLA** Mozioa onartzea.

B) MONJAXARRAK

EB-BERDEAK Taldeak aurkeztutako mozioa irakurtzen da:

Zumaiako Udala Karmeldar Oinutsen komentuaren jabe berria da. Ezker Batua - Berdeak-i oso ondo iruditzen zaio eremu hori udalarena izatea, interes handia duelako Zumaiako hiribilduarentzat.

Zumaiako udalerrian, udalak ez du "hiritarren partaidetzarako" dinamikarik sortu, etorkizuneko politika publikoak zehazteko orduan. Ezker Batua - Berdeak -en iritziz, oraingoa aukera paregabea da udalak - partaidetzan oinarritutako prozesua garatzeko. Horrela, bada, zumaiarrek udalari adierazi ahal izango diote zertarako erabiliko luketen "monjaxar" ezagunen eliza.

Herriaren partaidetzarako prozesu irekiaren bidez, zumaiarrok eremu publiko berri hori etorkizunean zertarako erabiliko den erabaki nahi dugu.

Erraz-erraza da, udalak ez du ezer erabaki behar, herriaren iritzia zein den jakin gabe.

Ezker Batua - Berdeak-en ustez, leku aparta izango litzateke erabilera anitzeko aretoa egiteko (hitzaldiak, kontzertuak, antzerkia...). Hori guztia dela eta, Ezker Batua - Berdeak-eko udal-taldeak honako mozio hau aurkezten du:

MOZIOA

Zumaiako udalbatzak udal-gobemuko taldeari eskatzen dio Euskal Herriko Unibertsitateko "Parte Hartuz" Hiritarren Partaidetzarako Sailarekin harremanetan jartzeko. Sail horrek, hain zuzen ere, partaidetzan oinarritutako demokraziarako prozesuak eta esperientziak sustatzen ditu Euskadin. Horrela, bada, "monjaxarren" etorkizuneko erabilerei buruzko partaidetzako prozesua hasteko aukera aztertu ahal izango da.

Cristina Forcada Unanue

Ezker Batua - Berdeak-eko bozeramailea

EAJ-ak ezadostasuna adierazten du Zumaiako udalak "hiritarren partaidetzarako" dinamikarik sortu ez duela dioten momentutik. Izan ere, Agenda 21-eko forua hor dago, Mugikortasunaren forua, euskararen aholku batzordea etbr...

Une honetan monjaxarren komentuaren gaia ez da lehentasunezkoa, nahiz eta aitortu horri ere heldu beharko diogula, baina baditugu aurreragoko gauzak.

Bestalde hiritarren partaidetza bultzatzeko zergatik Euskal Herriko Unibertsitateko "Parte Hartuz" Sailaren aholkularitza jaso behar dugu eta ez beste edozein talderen laguntza eskuratu ?

Enpresa hori kontratatzeak kostu bat izango du, zein kopurutaz ari garen adierazi behar da. Edo agian zerbitzuak doan ematen dituzte ?

EAJ-ren botua ezezkoa izango da.

IZUSTARRI-k dio hiritarren partaidetzarako dinamikak bultzatzea egokia dela. Baina ez dela momentua. Monjaxarrak oraindik bertan bizi dira. "Parte Hartuz " zer den azaldu behar zaigu, Euskal Herriko Unibertsitateko sail honekin lan egin behar badugu zer den ezagutu beharko dugu.

PSOE-k dio mozio honen aurrean abstenitu egingo direla. Izan ere ez daude ez alde ez kontra. Hori bai, denboraz kanpo dagoela uste

dugu. Oraindik hiru urte falta dira monjak lekuz aldatzeko. Komentua klausurakoa izanik dituen baliabideak ere ez ditugu ezagutzen. Beste lehentasun batzuetan gaude murgilduta Torreberri, Odieta... Ez dugu gaizki ikusten proposamena, baina bai denboraz kanpoko.

EA-k dio mozioaren filosofiarekin ados daudela. Baina "Parte Hartuz" ezezaguna egiten zaigu. Herritarren parte hartzearekin bat gatoz, baina zein eskaintza egiten diguten jakin beharko dugu. Mozioa ongi dago, baina elementuak falta dira. Gure botua abstentzioa izango da.

EB-BERDEAK zera jakinarazten du, "Parte Hartuz" Euskal Herriko Unibertsitateko zientzia politikoetako departamentu bat dela.

Ondoren bozketa egiten da:

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 12 (5 E.A.J, 2 IZUSTARRI, 2 E.A, 2 PSOE eta 1 EB-BERDEAK)

Aldeko botuak: Bat EB-Berdeak.

Aurkako botuak: Bost EAJ

Abstentzioak: Sei (2 IZUSTARRI, 2 E.A, eta 2 PSOE)

ERABAKI DA:

EB-BERDEAK Taldeak aurkeztutako Monjaxarrei buruzko mozioa ez onartzea.

3.- HIRIGINTZA:

EUSKO JAURLARITZARI PUNTANUETA 1-eko ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN PRESAZKO OKUPAZIO ESKAERA LUZATZEA.

2004ko irailaren 30ean Udal batzak hartutako akordioa betearaziz, argudio hauetan oinarriturik, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari presazko okupazioa deklaratzeko eskatzea.

Zumaiako Udalaren Planeamenduko Arau Subsidiarioetako "EU -1 PUNTANUETA- sektoreko Plan Partzialaren" desjabetze-espeditentak eragindako ondasun eta eskubideen presazko okupazioa deklaratzeko eskaera – .-

Zumaiako Udalak erabaki hau hartu zuen irailaren 30ean:

Lehena.- Behin betiko onartzea okupatu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 04-06-29an argitaratutakoa) eta ez onartzea garaiz eta modu egokian aurkeztutako alegazioa.-

Bigarrena: Presazko okupazioa deklaratzeko eskatzea Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari.

Alegazio bakarra Pedro Etxabe Galárraga jaunak eta beste batzuek aurkeztu zuten. Hau da beren helbidea: Zumaiako Ortega y Gasset kalea, 1-40 B.

Zumaiako Udalak hartutako erabaki hori betetzeko, idatzi honen bidez, presazko okupazioa deklaratzeko eskatzen zaio Eusko Jaurlaritzari, honako hauetan oinarrituz:

Lehena.- Udalbatzak 2000ko ekainaren 22an hartutako erabakiaren bidez, Zumaiako Udalak behin betiko onartu zen Otalora-Basustako lurrak Udal-ondarerako Lurzoru-erreserbara atxikitze Proiektua.

Zegokion desjabetze-espeditatea ireki ondoren, ondasunen eta eskubideen zerrenda onartu zen; Eusko Jaurlaritzak presako okupazioa deklaratu zuen; okupazio-aurreko eta okupazioko aktak egin ziren eta, behar zenean, aurre-gordailuak kontsignatu ziren.

Balioespena finkatzeko faseari ekin ondoren, guztiekin lortu zen akordioa, Pedro Etxabe Galarraga jaunarekin eta bere anai-arrebekin izan ezik. Azken horiek lur-zati baten jabeak ziren, proindiviso erregimenean.

Bigarrena.- Gerora, desjabetzearen ondorioz lortutako finkak erregulatzeari ekin zitzaion birpartzelatze-espeditente baten bidez. Espeditente horrek R – Bat Puntanueta finkaren %11,72 esleitu zien Etxabe Galarraga Anai-arrebei.

2003ko maiatzaren 12an, EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak baliogabetu egin zuen Lurzoruaren Udal-ondareko Proiektua. Bitartean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Zumaiako Planeamenduaren Arau Subsidiarioak onartu zituen, eta arauok desjabetze-sistema jasotzen dute Puntanueta arean jarduteko sistematzat. Horri dagokionez, aurreko udal-planeamenduak araututakoari jarraitu zion.

Hirugarrena.- Aurreko guztiaren ondorioz, Zumaiako Udalak beste desjabetze-espeditente bat ireki zuen, eta, oraingoan, desjabetzeak eragindako eskubideak — ondasunen zerrenda— ez ziren ondasun jakin bat, ehuneko jakin bat baizik. Ehuneko hori "Puntanueta BAT EU" exekuzio-unitatearen birpartzelatze-proiektuaren bidez Etxabe Galarraga anai-arrebei egindako esleipenari dagokio.

Erregistroko ohar sinplearen fotokopia eransten da. Ohar horretan ikus daitekeenez, deskribatutako finkaren (1.793 tomoa, Zumaiako 155 liburua; 21 ~~ folioa; 8.843 zenbakiko finka) ehuneko 11,72ren partaidetza dute Etxabe Galarraga anai-arrebek. Finka hori Zumaia Lantzen SA-rekin konpartitzen dute.

Laugarrena.- Pasa den denborari eta sortutako egoera bereziari erreparatuta (lehen adierazi den moduan, Etxabe Galarraga anai-arrebek eta desjabetzearen onuraduna den Zumaia Lantzen SA sozietateak finka berarekiko eskubideak dituzte), 8.843 erregistro-finkarekiko adierazitako ehunekoaren presazko okupazioa deklaratzeko eskatzen da, partaidetza zatiezineko erregimenean. Berriaz adierazten da desjabetze-jarduera horren (2. sektoreko plan partzialean jasotako Puntanueta 1 EU exekuzio-unitatearen desjabetze-proiektua) onuraduna Zumaia Lantzen SA dela.

Ondoren bozketa egiten da:

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 12 (5 E.A.J, 2 IZUSTARRI, 2 E.A, 2 PSOE eta 1 EB-BERDEAK)

Aldeko botuak: Hamaika (5 E.A.J, 2 IZUSTARRI, 2 E.A, 2 PSOE)

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: Bat EB-BERDEAK.

ERABAKI DA:

2004ko irailaren 30ean Udalbatzak hartutako akordioa betearaziz, argudio hauetan oinarriturik, 2. SEKTOREKO PLAN PARTZIALARI DAGOKION PUNTANUETA 1 EU-Ako desjabetza espedientean Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari presazko okupazioa deklaratzeko eskatzea.

4.- ZERBITZUAK:

4.1. ZUMAIAKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKOAN IBILGAILUEN APARKALEKUA MUGATZEN DUEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA.

Zerbitzu Batzordeko Lehendakariak azalpen luze eta zabal bat egiten du transparentziaz lagundurik, Ibilgailuen aparkaldi mugatua eta itsasontzi bidezko garraio zerbitzuari buruz.

Aparkaldi mugatua arautzen duen Ordenantzaren xedea, Portuko gunea mugaturiko epean ibilgailuak estazionatzeko erabiltzea eta erabilera hau betearazteko neurriak jartzea dela dio.

Udalak duen lurralde egituraren ondorio bertan trafikoa zuzentzea zein zaila den agerian uzten du. Hau da erakunde ezberdinen eskumenak gaineratzen direlako.

Aparkalekuaren seinalizazioa zein eratan egingo den eta panelak non jarriko diren adierazten du.

Beste udalerrietan zein prezio ordaintzen direnari buruzko azterketa bat azaltzen du.

Alderdien artean luze eta zabal eztabaidatzen da aparkalekuak tarifa izan behar duen edo eta doan eskaini behar den zerbitzu bat izan beharko lukeen. Aparkaleku hori zeinek finantzatu behar duen ere eztabaidatzen da. Eguraldiaren eraginari buruz etab.

IZUSTARRI-k adierazten du helburuarekin ados daudela, baina prezioekin ez. Zirkulazioa arautu behar da oinezkoaren alde eginaz gaur egungo egoera gaindituaz. Udalak erraztasunak eman behar ditu inzentibatu egin behar da helburu hori lortzeko. Era bakarra aparkalekua doan izatea da. Aparkalekua garesti eta hutsik baino hobe da doan eta beteta.

EAJ-k, mugikortasunaren ikuspuntutik zerbait egitea ezinbestekoa dela dio. Helburu nagusia hori da eta ondoren zumaiarrei ezertxo ez kostatzea. Aurtengoa esperientzia bat da eta datorren urteari begira ikusiko dugu zer egin.

Ondoren bozketa egiten da:

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 11 (5 E.A.J, 2 IZUSTARRI, 2 E.A, eta 2 PSOE)

Aldeko botuak: Bederatzi (5 EAJ; 2 EA; 2 PSOE).

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: 2 IZUSTARRI

ERABAKI DA

1.- ZUMAIAKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKOAN IBILGAILUEN APARKALEKUA MUGATZEN DUEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA haserako izaeraz onartzea.

2.- Gutxieneko 30 egunetako jendaurreko agerraldi epe bat zabaldu eta interesatuei audientzia eman, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita, erreklamazio eta murtziloak aurkez daitezzen helburuaz.

3.- Erreklamazio edo murtzilorik aurkeztuko ez balitz behin betiko onartutzat hartuko da erabaki hau.

5. HAZIENDA:

5.1. ZERBITZUAK ESKAINTZEAGATIK (BIDAIARIENA) ETA JABARI PUBLIKOA OKUPATZEAGATIK (OTA), TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEAREN ALDAKETAREN HASERAKO ONARPENA.

Hazienda Batzordeko Lehendakariak ondorengo proposamena aurkezten du:

IBILGAILUEN APARKALDI MUGATUAREN TASAK

IBILGAILUEN APARKALDI MUGATUA PORTUKO GUNEAN

0 - 4 Ordu 3 Euro

4 – 7 Ordu 4 Euro

7 – 11 Ordu 6 Euro

Salaketa baliogabetzea 9 Euro.

BIDAIARIEN UR GAINENKO GARRAIOARI DAGOZKION TASAK

TXOMIN AGIRRE KAIA, SANTIXOKO HONDARTZA ETA KIROL PORTUKO ZABALGUNEAN

TXOMIN AGIRRE KAIA

Bidai bat, Euro bat

Joan-etorria 1,5 euro

20 bidaiako bonoa..... 10 euro

KIROL PORTUKO APARKALEKUTIK, APARKALEKUKO TICKETIK GABE

Bidai bat, Euro bat

Joan-etorria 1,5 euro

KIROL PORTUKO APARKALEKUTIK, APARKALEKUKO TICKETAREKIN

Egun guztiko joan etorriak0,50 euro

Ondoren bozketa egiten da:

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 11 (5 E.A.J, 2 IZUSTARRI, 2 E.A, eta 2
PSOE)

Aldeko botuak: Zazpi (5 EAJ; 2 EA).

Aurkako botuak: 2 IZUSTARRI

Abstentzioak: 2 PSOE

Eraentza lokaleko oinarriak arautzen dituen 7/1985 apirilak 2ko legeko 47,3 h) atalean ezarririko legezko quorumaren aldeko botoaz, hots, legezko zenbakiaren gehiengo absolutuaz, aldeko zazpi botoz, ERABAKI DA:

1.- 2005eko ekitaldirako Hazienda Batzordeak luzaturiko Ordenantza Fiskalen aldaketa proposamena behin behingo izaeraz onartzea, hau da,

Udal Jabari Publikoaren erabilerari dagokion Tasaren Aldaketa Ibilgailuen Aparkaldi mugatua Portuko gunean eta Zerbitzu Publikoak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren aldaketa, bidaiarien ur gaineko garraioari dagozkion tasak Txomin Agirre Kaia, Santixoko Hondartza eta Kirol Portuko zabalgunean.

2.- Jende aurreko 30 eguneko epe bat irekitzea iragarkia GAOn argitaratzen denetik zenbatzen hasita, erreklamazio eta oharpenak aurkeztu ahal daitezen helburuaz; aurkeztuko balira korporazioak ebatzi beharko litzukeelarik, aurkeztuko ez balira behin betikoz onartutzat emango dira.

5.2. 1. ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETA. MUSIKA PATRONATUA.

Hazienda Batzordeko Lehendakariak Musika Patronatuko Kreditu Aldaketari buruzko azalpenak ematen ditu.

Hiru diru iturri bereiztu behar dira: Eusko Jaurlaritzarena, kuotetatik lortutakoa eta azkenik Udalak ematen duen laguntza.

Eusko Jaurlaritzako Dirulaguntza era honetan banatzen da: patronatua mantenimenduaren gastuei aurre egiteko dagokion kopuruarekin gelditzen da eta musika eskola berriz irakasleen ordainsariei dagokionarekin.

Eusko Jaurlaritzatik dirulaguntza kopuru handiagoa jaso da, baina aldi berean irakasleen gastua ere gehitu egin da, kreditu aldaketa honen bidez sarrera handiagoekin gastu handiagoak estaltzen dira.

GASTUAK GAUZATZEKO PROPOSAMENA ETA HORI DAGOKION KREDITU-ALDAKETA

Zerrendatutako gastuak egiteko premiari erreparatuta (ez badira egiten, dagozkien zerbitzuak emateko erritmoa etengo da edo horien kudeaketa-maila jaitsi beharko da) eta horiek finantzatzeko aurrekontu-kredituak nahikoak ez direla edo esleitutako krediturik ez dagoela aintzat hartuta, proposamen hau egiten da, indarreko aurrekontu-egiturari jarraituz.

Aurrekontu-saila	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoa	Aldak.	Behin betikoa
1-00-00-480-000-00-01	Musika Eskolari dirulaguntza	37.500,00	12.835,68	50.335,68

GUZTIRA		37.500,00	12.835,68	50.335,68

Zumaian, 2005eko maiatzaren 9an
Alkatea

KREDITU GEHIGARRIEN FINANTZAZIO-PROPOSAMENA

Sarrerak edo/eta gastuen aurrekontu-sailak	Kontzeptua	Sarrera handiagoak edo/eta Bajak gastuetan	Baliabide Partziala
2-00-00-870-000-00-02	Kreditu-soberakina 2004		12.835,68
GASTUAREN IGOERA, GUZTIRA			12.835,68

Zumaian, 2005eko maiatzaren 9an

REMANENTE DE TESORERIA

Amaia Jauregiberri Goenaga Interventora del Ayuntamiento de Zumaia

CERTIFICO:

Que según resulta de la Liquidación del Presupuesto del Patronato de Música, integrante del Presupuesto General, correspondiente al ejercicio de 2004, aprobada por Decreto de Alcaldía de fecha 31 de marzo de 2005, el Remanente de Tesorería bruto asciende a 103.075,12 euros.

Y para que conste en el expediente de su razón expido la presente certificación de orden y con el Vº Bº de la alcalde,

En Zumaia, a 9 de mayo de 2005

Vº Bº

La alcalde

REMANENTE DE TESORERIA DISPONIBLE

La interventora del Ayuntamiento de Zumaia, al amparo de las previsiones contenidas en los números 6 y 7 del art. 48 de la Norma Foral 21/2003, tiene a bien calcular el Remanente líquido de Tesorería, a efectos de su disponibilidad como recurso de financiación, conforme al siguiente detalle:

- Remanente de Tesorería bruto.....	103.075,12 €
- Derechos pendientes de cobro de difícil realización(-)	0,00 €
Remanente de Tesorería líquido.....	103.075,12 €
- Remanente de Tesorería afectado a Gastos con financiación afectada(-)	0 €
Remanente de Tesorería inicial para Gastos Generales	103.075,12 €
- Remanente de Tesorería utilizado para financiar expedientes de Modificación de Créditos aprobados(-)	0 €
Remanente de Tesorería líquido disponible.....	103.075,12 €

En Zumaia, a 9 de mayo de 2005

Ondoren bozketa egiten da:

Eskubidezko zinegotzi kopurua: 13

Bilerara bertaratuak: 11 (5 E.A.J, 2 IZUSTARRI, 2 E.A, eta 2 PSOE)

Aldeko botuak: Bederatzi (5 EAJ; 2 EA; 2 PSOE).

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: 2 IZUSTARRI

ERABAKI DA:

Musika Patronatoko 1.go Kreditu aldaketa onartzea.

6.- ESKARI – GALDERAK.-

Alkate Lehendakariak zinegotziren batek eskari galderarik luzatu nahi duen galdetzen du.

IZUSTARRI Taldetik zera galdetzen da Zumaian emakume martxa dela eta zerbait antolatu den.

EAJ-k erantzuten du Malen Etxea bezala ezagutzen den emakume atzerritarren taldeak Udalaren dirulaguntzarekin zenbait ekitaldi antolatu dituela dio. Zine forum, tailerrak....

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-Lehendakari andreak bilera amaitutzat ematen du, gaueko hamarrak eta hogeita hamar minutu direnean, eta nik Idazkariak fede ematen dut.

ALKATEAK O.E

IDAZKARIAK